

Alegiako organistak

Salvador Antonio Arrieta Garmendia

- 1836/05/12an jaio zen, Alegian.
- 1880/03/06an hil zen, Alegian.
- Granadako osabak dirua jarri zuen “organito” bat koruan jartzeko eta familiakoak aipatzen zituen organista lana egiteko.

Miguel Jose Eceiza Aizpurua

- Beizaman jaio zen, 1854/08/02an.
- Alegian hil zen, 1889/07/06an.
- Salvador Antonio Arrietaren ondorengo organista izan zen.
- Udaleko idazkaria izan zen.

Juan Jose Oñaederra Alegria

- Azkoitian jaio zen, 1843/09/19an.
- Alegian hil zen, 1899/10/19an.
- Miguel Jose Eceizaren ondorengo organista.
- Alegiako Udaleko idazkaria ere izan zen.
- Victoriano Balerdi, Amezketako konpositorea, honekin hasi zen musika ikasten.

Bernardino Azurza Aramburu

- Tolosan jaio zen, 1877/05/20an.
- Iruñean hil zen, 1955/08/29an.
- Ambrosia Aramburu eta Ildefonso Azurza zituen gurasoak.
- Senideetan zaharrena zen.
- Gorriti maisuarekin ikasi zuen lehenengoz musika. Gero Frantziara ere joan zen musika ikastera.
- Tolosako parroko organista izan zen.
- Alegiako Antonia Gorostiaga Imazekin ezkondu zen, 1900/11/04an, eta denda jarri zuten Alegian.
- Alegiako organista lana ere berak egiten zuen.
- Oso organista ona eta inprobisatzaile bikaina omen zen.
- Bost seme-alaba izan zituzten eta gehienek musika ikasi zuten eta pianoa jotzen ere bai. Jesus Azurza Gorostiaga semea Orendaingo eta Alegiako organista izan zen.
- Gerra zibila amaituta, 1939an, Iruñera joan ziren, eta hor ere, dendari izan ziren.
- Iruñeko katedraleko eta Nafarroako Ospitaleko organista izan zen, azkenera arte.

Jesus Azurza Gorostiaga

- Alegian jaio zen, 1904/11/28an.
- Iruñean hil zen, 1992/11/21ean.
- Bernardino Azurzaren semea.
- Aitarekin ikasi zuen musika.
- Alegiako eta Orendaingo organista izan zen, gurasoekin batera Iruñeara joan arte.
- Iruñean Dominikoen parroko organista izan zen, 25 urtetan.
- 1930 inguruan ezkondu zen, lehenengoz, Alegian eta bigarrenez, Alegiako Carmen Baldarekin ezkondu zen 1943/08/27an. Hiru alaba izan zituzten.
- Anaiak, Josek, enkuadernatzeko tailerra zuen eta han egiten zuen lana.
- Nafarroako Foru Gobernuak omenaldia egin zieten 1988/10/16an hainbat organistari eta Jesus ere horien artean zen.

Francisco Arrizabalaga Balerdi

- Alegian jaio zen, 1892/12/2an.
 - 1968an hil zen (76 urterekin).
 - 1941ean apaiz ordenatua izan zen.
 - Lekeitioko organista izan zen lehenengoz.
 - Santiago de Cubara joan zen gero, katedraleko organista eta “El cobre” seminarioko irakasle izateko, eta 1953an itzuli zen Euskal Herrira.
 - 1954/05/07an Arrasatera joan zen, San Juan Bataiatzailearen parrokiako organista izateko eta “mercenarias” mojen kapilau izan zen.
 - Gaixorik jarri zen eta Deba Garaiko ospitalean hil zen.
 - Bere arlo nagusia musikari-organista izan zen. Partiturak jotzeko zuen teknizismoa aipatzekoa da, eta horrek, hoztasun sentsazioa eragiten omen zuen.
 - Parrokiko artxiboko arduraduna izan zen, lan ona eginaz horretan ere.
- (Joxe Eizmendik lortutako informazioa)

Patxi Urteaga Iturrioz

- Ordizian jaio zen, 1898/07/11n.
- Alegian hil zen, 1972/08/03an.
- Luis Urteaga musikari handiarena anaia eta Juan Urteagaren osaba.
- Beasaingo fraideetan egin zituen ikasketak.
- Senide guztiek zekiten musika eta pianoa jotzen ere bai.
- Orbón (Palentzia) egon zen zenbait urtetan mehatzetako bulegoetan lanean. Han ezkondu zen Dionisia Hoyosekin.
- Euskal herrira itzulita, Alegiako eta Altzoko organista izan zen.

Joxe Arrayet Endeiza

- Alegian jaio zen, 1915/12/09an.
- Alegian hil zen, 1975/04/14ean.
- Tolosan, Mokoroarekin, 7 urtez aritu zen pianoa ikasten.
- Altzo Azpiko organista izana eta Alegian ere jotzen omen zuen.
- Euskal melodiak elizan jotzen aitzindaria izan omen zen.
- Txistua, txirula (flauta) eta akordeoia ere jotzen omen zituen, bere kabuz ikasita.
- Etxean pianorik ez zutenez (gerra garaian kenduta), Zakarias Arangurenen etxera joaten omen zen pianoa jotzera, eta batzuetan Benta Haundira ere bai, jangelan pianoa edukitzen omen zuten eta.
- Lukas Guridiren garaiko koruko kidea.
- Gerra zibilean ibili zen, baina PNVkoa izanik, errefuxiatu beharra izan zuen.
- Loiola batailoian ibilia, Bilbon preso hartu eta Santoñan kartzelaratua izan zen, bost urte eta erdi lan-batailoietan egon zen.
- Ondorenean, gorria zelako, inon ez zioten lanik eman nahi, eta mekaniko dentista aritu zen.

Xerapio Letamendia

- ♦ Alegian jaio zen, 1917/11/14an.
- ♦ Tolosan hil zen, 1983/05/21ean.
- ♦ Abaltzisketako eta Ormaiztegiko Udaletako idazkaria izan zen.
- ♦ Oinarrizko ikasketak Alegian egin zituen.

- ◆ Musika eta pianoa Inaxio Mokoroarekin hasi zen ikasten.
- ◆ Seminaria joan zenean, han jarraitu zuen musika ikasten.
- ◆ 1936an alde egin behar izan zuen Euskal Herrietik.
- ◆ Itzuli ondoren, Burgosen egin zituen Udaletako Idazkaritza ikasketak.
- ◆ Alegiako organistak formatzeko ahalegin handiak egin zituen.

M^a Asuncion Salaberri Urcelai

- Aramaion (Araba) jaio zen, 1929/08/16an.
- Alegian bizi da 1994 urteaz geroztik.
- Madrilen ikastetxe-barnetegi batean egin zituen ikasketak eta moja sartuta gero ere jarraitu zuen ikasten.
- Pianoko karrera egina, Donostian organoko karrera egina, Elizondorekin.
- Gregoriano ikastaroa eta Abesbatzen zuzendaritza Tomas Iruarizagarekin egin zituen, Madrilgo “Escuela de Música Religiosa” ikastetxean.
- “Cursos de actualización Pedagógica” 6 kurtso egin zituen Donostiako kontserbatorioan, Francisco Eskuderorekin.
- Aita biolin-jotzailea zen eta senide guztiak ere musika dakitenak dira, Xabin horien artean onena, konpositore ospetsua.. Musika odolean daramatela esan daiteke.
- Beren ikastetxeetan jotzen du organoa eta, Alegian dagoenetik, inguruko beste herrietan ere jotzen du: Altzon, Loiolan, Larratxon, Alegian, Abaltzisketan, Amezketan, Orendainen...
- Abestea gustukoa du eta elizetako kantuak zuzentzen ditu.
- Haien ikastetxeetan, eta Alegian ere bai, solfeoa irakasten zien ikasleei.
- Donostiako ikastetxean ikasleen abesbatza handia zuen, eta haietako partaide askok eta askok gaurko Orfeoian abesten du.

Jose Manuel Ezeizabarrena Ermina

- Alegian jaio zen 1935/02/26an.
- 11 urterekin Arantzazuko frantziskotarretan sartu zen eta Foruan ere ikasi zuen, ordena bereko komentuan.
- 1959an ordenatu zen, eta 1960an Argentinara joan zen.
- Argentinan 45 urte egin zituen eta 2005ean itzuli zen, berriro, Oñatira.
- Musika ikasten Foruan hasi zen eta Arantzazun jarraitu zuen Ezkurdia zuzendari handiarekin.
- Akordeoia jotzen ere badaki.
- Argentinan, apaiz-lana egiteaz gain, organista izan zen, batez ere hiletetan jotzen zuen meza kantatua izaten zelako, egunean 3 edo 4 hiletatan jotzen omen zuen.

Arantxa Gastesi Iriarte

Honela adierazi du musikaren inguruan egindako ibilera:

“Lazkaon jaio nintzen, 1960/09/05ean.

Pianoan Goi Mailako titulua dut eta Solfeoan, Transposizioan eta Akonpainamenduan Erdi Mailakoa. Titulu hauetaz gain ikastaro asko egin ditut, irakaskuntza mailan ezinezkoa baita ikasteaz uztea, beti dago eta zerbait berria.

Piano-irakaslea naiz 1978/1979 ikasturtetik. 1994/1995 ikasturtetik aurrera, Beasaingo Loinatz Musika Eskolako zuzendaria.

Zazpi urterekin hasi nintzen pianoa ikasten, Beasaingo M^a Dolores Agirre andereñoarekin. Hamalau urterekin Donostiako Kontserbatorioko J.A. Medina irakaslearekin jarraitu nuen zortzi urtetan zehar, bera hil zenean Tolosako Carmen Ocarizekin egin nuen Goi Mailako azken urtea, hogeita bi nituela amaituaz.

Betidanik gustatu zait irakastea eta Irakasle Titulua lortu nuenean (Erdi Mailakoa), pianoa irakasten hasi nintzen Beasaingo Musika Eskolan, hemezortzi urte nituela, era berean ikasketekin jarraituz Goi Mailakoa egin bitartean. Pianoa irakasteaz gain, Musika Lengoaia, Harmonia, Transposizio eta Akonpainamedua ere irakatsi izan dut.

Pianoa bakarlari modura jo dudanean, kontzertu egitaraua beste batzuekin osatuaz izan da, Donostian eta Beasainen, hain zuzen ere. Bestalde, bi pianoaz jo dut Ane Erguinekin Beasainen, Donostian eta Burgosen. Honetaz gain, haizezko instrumentuekin, harizko instrumentuekin eta ahots bakarlariekin ere jo dut.

Gaztaroan "Lazkaoko Orchestra" taldean teklatu jolea izan nintzen, Lazkaon Gasteizen eta hemen inguruko herrietako berbenetan joaz.

Nire aitaren eskutik hasi nintzen koral munduarekin harremana izaten. Berak Txintxarri abesbatza zuzentzen zuen eta behin, Santa Ageda bezperan abestera joan nintzen Alegiara, hamabi urte izango nituen gutxi gora behera. Horrela izan zen nire lehendabiziko kontaktua koralarekin eta horrela hasi nintzen Txintxarri abesbatza abesten. Kontzertuak eta Mezak abesten genituen. Batzuetan Serapio Letamendiari laguntzen nion organoko erregistroak atera eta sartzen. Horrela ikasi nuen organoarekiko dakidan gutxi hori. Ondoren, urte batzuetan zehar, ni izan nintzen organo-jolea Txintxarri Abesbatzak abesten zuenean. Oso esperientzia ona izan zen, asko ikasi nuen. Hogeita hamar urte inguru nituenean abesbatza utzi egin nuen. Azken urte hauetan Loinaz abesbatzarekin pianoa jo izan dut, baita Kantaka, eta Xanbe abesbatzekin ere.

Konposaketak ez ditut, konponketak bakarrik, adaptazioak eta melodia ezagunen harmonizazioen bat edo beste, beti ikasleei zuzenduak. Dena den asko gustatzen zait eta inbidia "sano" asko ematen dit besteen lanak entzuten ditudanean. Agian egunen batean....”

Juanjo Orbegozo Semperena

- Tolosan jaio zen, 1961/03/10ean.
- Euskal Filologian lizentziatua. Euskal Hizkuntza eta Literatura irakaslea.
- Alegian hasi zen solfeoa eta txistua ikasten. 12 urterekin hasi zen solfeoa eta pianoa ikasten Donostiako Kontserbatorioan azterketak egiteko.
- Organo ikasketak, berriz, Gasteizko Musika-Eskolan egin zituen.
- Pianoan eta Organoan IRAKASLE titulua lortuak ditu (Pianoko 8 urte eta organoko 5 urte).
- Etxean musika giroa izan dute, aita trikitixa inguruan ibilia eta senide guztiak solfeoa eta txistua ikasiak. Arreba bat, Garbiñe, Goi-Mailako ikasketak egin, Musika-Eskolako irakaslea eta Abesbatza Zuzendaria da.

Juan Ignazio Ugartemendia Ezeizabarrena

- Alegian jaio zen, 1963/07/09an.
- Jose Manuel Ezeizabarrenaren iloba.
- Zuzenbidean Doktorea eta Unibertsitateko irakaslea.
- Musika:
 - Alegian ikasi zuen musika: solfeoa D. Emigdiorekin, D. Bizenterekin eta M. Paz Telleriarekin eta pianoa M. Pazekin eta Loreto Fernándezekin.
 - Akordeoia jotzen Tarragonarekin ikasi zuen.
 - Txistua irakatsi ziotenak berriz, Tomas Iraola, Mila Begiristain, Axun Orbegozo eta German Insausti izan ziren.

o Horrez gain harmonia ikasi zuen eta organoa jotzen ere bai.

- Germanen taldeko kide izan zen, Abitto (atabala), Rikardo (atabala eta txistua), Pello (atabala eta txistua) eta German bera ziren taldekideak.
- Akordeoia jotzen Jose Luis Zabalarekin ibili zen, eta koadrilakoen eta lagunaren ospakizunetan ere bai.
- Txintxarri abesbatzako kidea izana.
- 1977an hasita (13 urterekin) elizako harmoniuma jo zuen, Xerapio Letamendiak lagunduta. 1985 arte izan zen Alegiako organista. Altzoko bi elizetan ere jotzen zuen organoa.
- 1980tik 1988 arte musikako klaseak ematen zituen Alegian; solfeoa, pianoa, akordeoia, harmonia...
- 1985ean hasi zen Loiolara joaten, larunbatetan eta igandetan, organoa jotzera, 1988 arte.
- Tolosako Asuncion klinikako kaperako organista izan zen bi urtez.
- Azkeneko 10-12 urtetan Antiguako parrokian jotzen du organoa.

M^a Jesus Rekondo Arozena

- Alegian jaio zen, 1964/04/03an.
- Irakasle-eskolan eta Historian lizentziatua.
- Alegian D. Joane antolatu zituen klaseak, Ordiziako M^a Paz Telleria etortzen zen ematera eta hura joan zenean Loreto Fernandez Imazek ematen zituen.
- Horiek solfeoa eta pianoa irakatsi zien talde handi bati eta Mariajeri ere bai.
- Gero Donostian jarraitu zuen ikasten, pianoa, harmonia, gai osagarriak, pedagogia....
- Erdi mailako titulua atera zuen pianoa oinarri hartuta.
- Tolosako Musika Eskolako irakaslea da. Alegiako organista, inoiz Tolosako S. Mariakoa ere bai eta Txintxarri abesbatzako pianista.

María Jesús Pérez Frades

- Tolosan jaio zen, 1970/03/03an, baina Alegian bizi zen.
- Zuzenbidean Lizentziatua.
- Solfeoa, korala, harmonia eta pianoa ikasia, Alegian eta Tolosako akademiatan.
- Musikako ikasketak egiten etxean bultzatuta hasi zen.
- Alegiako parrokoiko organista da, beste batzuekin batera, duela 20 bat urtez geroztik.
- Alegiako organistekin ikasi zuen organoa jotzen.

Loli Pérez Frades

- Tolosan jaio zen, 1973/08/11n, baina Alegian bizi zen.
- Geografia eta Historian Lizentziatua. Bigarren Hezkuntzako irakaslea.
- Familiak bultzatuta hasi zen musika ikasten, musika irakurtzen hizkiak irakurtzen baino lehenago ikasi omen zuen.
- Alegiako akademia batean ikasi zuen musika: solfeoa eta pianoa.
- Alegiako organista lanetan hasi zen duela 20 bat urte, eta beste organistekin txandakatuz, lan horretan jarraitzen du.